



# Guau Doktorea

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

**GUAU DOKTOREA** Palomares familia zaintzen duen txakur jakintsua da. Guau doktorea bidaiari irretzen bakoitzean, Palomarestarren osasunak okerrera egiten du erabat: amigdali-tisa, haizeak, zorabioak... Zorionez, hortxe daukate Guau doktorea aholkuak emateko, bestela...

## Jardueraren garapena

Hasteko, aipatutako liburua irakurri eta marrazkiak erakutsiko dizkiogu talde osoari. Liburuko istorioa aprobetxatuz, bertan aipatzen diren gaixotasun eta arazoei buruz mintzatuko gara:

- Ezagutzen duzue gaixotasun edo arazo horiek izan dituen inor?
- Ohikoak dira?...



*Komunera joan eta gero eskuak ondo garbitzea aholkatzen digu Guau doktorea. Horrez gain, belarrien garbitasunari eta ilearen zaintzari ere erreparatzen die.*

Gero, bi talde egingo ditugu: talde batekoek gaixoen rola hartuko dute, eta bestekoek, sendagileena. Gaixoen taldeko kide bakoitzak bere arazoa idatziko du papertxo batean (adibidez: soinketa-kla-searen ostean, gorputz osoan izaten dut mina) eta beste taldeko pertsona bati emango dio.

Arazoak irakurri eta horien gainean eztabaidatu

ondoren, sendagile taldeak konponbideak idatzi eta aurrerantzean arazok saihesteko aholkuak eskainiko ditu. Irakasleak arbelean idatziko dituzko arazoak eta konponbideak, zutabe banatan.

Amaitzeko, guztion artean, eskolan nozitzen diren gaixotasunak ohiko-enei eta horiek sorrarazten dituzten eragileei buruz mintzatuko gara.



**Iturria:** COLE, Babette: **El Doctor Guau y unos consejos para tu salud.** Destino.artzelona, 1994.

